SEGURAKO UDALA

## Ibilgailuaren zerga salbuespena

**Definizioa:**
Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzetik salbuetsita egotea edo onuraduna izatea minusbalitasun maila jakin bat izateagatik.

**Non tramitatu:**
Udaletxean – Gizarte Zerbitzuak
Asteazkena 8:00-13:30 eta 15:00-17:30. Ostirala 8:00-14:00.
Telf. 943 801006
gizarte.segura@udal.gipuzkoa.net

**Aurkeztu beharreko agiriak:**
**A.- Minusbaliatuek gidatutako ibilgailuak**

- NANaren fotokopia.
- Minusbaliotasun-ziurtagiria, eskumena duen organoak emana.
- Gida-baimenaren fotokopia (bi aldeetatik)
- Minusbaliatuaren izenean dagoen zirkulatzeko baimenaren fotokopia.
- Zinpeko aitorpena, ibilgailua berak erabiltzeko baino ez dela dioena.

**B.- Minusbaliatuak garraiatzeko ibilgailuak**

- Minusbaliatuaren eta gidatu ohi duenaren NANen fotokopiak.
- Minusbaliotasun-ziurtagiria, eskumena duen organoak emana.
- Minusbaliatuaren izenean dagoen zirkulatzeko baimena.
- Zinpeko aitorpena, ibilgailua salbuespena jaso duena garraiatzeko baino ez dela dioena.

**Bestelakoak:**

- Salbuetsita daude minusbaliatuen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.
- Salbuespena ibilgailu batengatik bakarrik izango zaio aplikagarria subjektu pasiboari.
- Ibilgailuen titularrak Seguran erroldatuta egon beharko du.

- Minusbalia dela-eta salbuspenaz baliatzeko eskaerak otsailaren 15era arte egin ahal izango dira. Ondoren egindako eskaerak indarrean jarriko dira eskaera egin eta hurrengo zerga-aldian.
- Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean.

Eskaera orria eta zinpeko aitormena